

Anaitasuna

III URTEA N.—30

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Urtarrilla (I) 1.956

ZORION EGARRIA

Misiñoak izan dira ille onetan Gernika aldean. Eta datorren illean, Bermeon eta inguruetako errietan izango dira.

Misiñoetan, alkarrikusi bat eukiten dogu Kristogaz, gure bizitzako problema sakonak begien aurrean daukoguzala. Arako emakume samariarraren antzera, egun orreetan entrevistatu egiten gara Jesusegaz, eta barruan daroagun egarrria kentzeko ura eskatuten deutsagu.

Atsegin egarrria —gozetako, diru eukiteko, zorionsuak izateko gurari itsua —sentietan dogu guztiok biotz barrenean. Eta ain zuzen-bere, itsua dalako, gurari orrek norma bat euki bear dau. Osterantzean, kontrol bako zorion egarri orrek il egingo gindukez, gure arimearen freno bako tentsiñoagaitik eta gure gorputzaren beingozko ondamendiagaitik.

Norma bi daukoguz, zorionaren problema ebazteko: alde batetik, **materalismoa**— gure jokerak, gure instintu guztiak ontzat artzen dituana, pekatuaren existentzia ukatuten dabena. gure pasiñoeri askatasun osoa emoteko sakatuten gaituana, gure gurari guztien asebetea gauza naturaltzat daukona. Beste aldetik, **espiritualismoa** — Jesukristok irakatsi deuskuna, pasiñoak ito ez, baiña bai, zoratu ez daitezcan, frenatu ta zuzenduten dituana.

Gure bizitzan, iru alditan betez-bere egoten gara norma bat edo bestea artzeko bidekurutzean. Lenengo pubertadean

(amalau-amabost urtegaz, sexuaren indarra agertzen jakunean), gero ezkonbarri demporan, eta azkenik berrogei-berrogetamar urteko andra-gizonak egiten gareanean.

Gure arimearen krisi orretan, batzuk bete betean artzen dabe espiritualismoaren soluziñoa; beste batzuk teorian bakarrik, gero praktikan kontrol barik bizi direala; eta beste batzuk, azkenik, espiritualismoaren norma ori naiz teorian naiz praktikan alde batera itxita, oso osoan artzen dabe materialismoaren formula nasaia.

Zelakoa izan dan gure umezaroko kristiñau instruiziñoa, zelakoa izan gure gaztezaroko erlegiño ikasgurea, zelakoa izan dan kristiñau ikasbidean gero egin dogun aurrerakuntzea, alakoa izango da gure bizitzako krisi orren ostean artuko dogun bidea.

Ori dala-ta, gure zorion egarriaren problema sakona ondo ebazteko, argi ta garbi ezagutu bear dogu kristiñau erlegiñoa. Jakin Jesusen erantzuna, ezagutu Jainkoaren doia, ikasi sazerdoteak —Jainkoagazko gure bitartekoak— emoten deuskuezan irakaspenak. Ain zuzen-bere, orrexetarako dira, gure errietan noizik noizera emoten direan misiñoak: Jesukristogaz alkarrikusi bat eukiteko, gure biotzeko gorabeerak berari agertzeko, eta berak erakusten deuskun bideari jarraituteko.



Valencia.—Bere arkidiozesiko persona nagusiak kristiñau erlegiñoa ondo ikasi daien, eta mezako liturgia aintzat artzen asi daitezcan, auxe agindu dau Dóktore Martzelino Olaetxeak, Valenciako Artzobispoak:

"Gogoratu beie arkidiozesi onetako abade ta frailleak, persona nagusieri domeka ta jai egunetan kristiñau ikasbidea irakastek dauken obligaziño aundia. Egin-kizun ori kumpletako sasoirik onena —zoritarrez, besterik eziñean — meza bitartea da, eleiztar geienak orduantxe, ta orduantxe bakarrik, batuten dira-ta.

Ori dala-ta, "sub gravi" aginduten deustset parroko jauneri ta osterantzeko persona karguduneri, domeka ta jai egunetako meza guztietan erriari predikatu dakiola, eta berbaldia egiten dan bitartean —bost edo amar minutuan — mezea geratu daitela.

Ba-dakit, eleiztar geienak mezako liturgiari jarraituteko preparaziñorik ez daukena; eta ezer egin barik egon baiño, meza osoan sermoia entzun naiago leukeena. Parkatu deistela, baiña ezin neikioe onetan gusturik emon.

Irakatsi beioe sazerdoteak erriari bide zuzena. Zabaldu beite eleiztar guztien artean espirtu liturgikoa, euren oraiñarteko pasividadea alde batera itxita, mezako sakrifizioan gero ta parte geiago artu daien, eta euren poza ta probetxuak egunean baiño egunean aundiagoak izan daitezcan.

Orretarako, Jainkoaren laguntasunagaz, gure seminario metropolitanoan, Pazko osteko egunetan, **Aste Liturgiko** bat ospatuko dogu, eta batzar orren ikasgeia, "kristiñauak eta meza santua" izango da.

Estadu Alkartuak.—Ipar-Amerikako nazifño aundi onetan, amabost milloi persona baltz bizi dira gaurko egunean. Eta euretarik milloi erdi bakarrik dira katolikoak.

Donostia.—Euskereari indar barri bat emon gurarik dabiz, gogor. Illero egiten dira Diputaziñoan berbaldiak euskeraz eta baita beste gauza asko, errebista, euskal klase, estudioak eta abar.

Egin be, Donostian Bilbon baiño geiago berba egiten da, lotsa gitxiago deutselako, urrean, euren berbeteari. Areikandik ejenplu artu bear geunke gure Bikai onetan eta ugariagotu; ez bazartu eta sitsak jaten itxi; bizitu, erabili eta indar emon. Orretarako, ezkaitezcan lotsatu gure euskerea zatarra dala esanik; ez. Ezelan be eleuke pasau bear gure burutik pentsamentu orrek, pentsamentu guztiz galgarri orrek. Ba-da naikoa denpora gure errian bizi dala uste ori, sustraitsu eta bizi-bizirik, pentsetan dala liburuetan ezin erabili leitekela euskera motz ori, garbiagoa baiño, sano garbia. Uste okerragorik ezin iñon topau, ondamendira garoazan uste zitalagorik.

Ekin deiogun, ba, gureari indar emoten, berba eginez al dogun guztietan, jentea gauza errazak leiduten oitu-eragiñez eta bide batez zabalduz gure Anaitasuna au leku guztietatik, illerokotik asterokoa biurtu al izan daiten eta obatu al dan guztian. Gaiñera, elitzake izango erlegiñozko uts-utsa bakarrik: bizitzako gauza guztien gaiñean ibiliko litzake, erlegiñoaren kontrako ez tirean gauza danetan, katoliko eran. Anaitasunak eztau izan gura erlegiñozko orri uts-utsa, askotan bein-beiñeko interes andi bat eztauela, bazartu eta itxi egiten dana, ez; bizitza osoari emon gura leuskio kutsua. Orregaitik daroni eskatuten deustset bultzada apur bat emoteko, suskritoreak egiñez edo beste edozein eraz, euskal asteroko baten oiñarriak ipiñi daiguzan Bizkaian eta euskereari balore bat emon, egunean egunean abiadura andiagaz aldatuten ikusten dogun bizimodurako. Aldatu daigun, orretarako, gure errian bizi dala asan dodan uste zital ori, jaigi gaitezcan bere kontra. gogo barri ta indartsu bat sortu daiten bere orde. Aurrera.



Jesukristoren Jaiotzea

—Cesar Augustok, Erromako Emperadoreak, bere Imperio osoaren empadronamentua egin gura eban: au da, bere menpean zenbat persona bizi zirean jakin gura eban; eta orretarako, familia buru guztiak euren atxiñako gurasoen errira joateko, eta bertan euren izena eta etxeko guztien izena, euren ondasunak eta estatu ekonomikoa deklarretako agindu eban.

—Maria ta Jose, David erregearen ondorengoak zirean, eta orregaitik Belen zan euren familiaren atxiñako errira. Araxe joan bear dau San Josek, Erromako Emperadorearen agindua betetako.

—Dempora atan, Belen, Judea provintziako erri txiki bat zan. Milla bizilagun inguru eukiko zituan. Geienak, pobreak: artzaiñak edo labradoreak. Bertatik Jerusalemera 9 kilometro dagoz; Nazarethera, barriz, 150. Erri txikia ta pobrea izanarren, ondo ezagututen dabe judeguak, Egiptorako kamiñoa bertatik igaroten dalako, eta bide ondoan ostatu aundi bat dagoalako.

—Urtetan dau San Josek Nazarethetik, eta artzen dau Belenerako bidea. Ibiltaldi ori egiteko, bera bakarrik beartuta egonarren, Mariagaz doa. Bederatzigarren illabetean dabil Maria, eta estatu orretan San Josek ezin leike itxi bere emaztea bakarrik Nazaretheko etxean. Orrezaz gainera, eurak ondo ezagututen ditue profeziak, eta ba-dakie Mesias Salbatzaillea, seireun urte lenago Mikeas profeteak esan eban legez, Belenen jaioko dana. Orregaitik pozik doaz Belenera, eta aurrerantzean bertan biziteko asmao daroe.

—Ibiltaldi gogorra Mariarentzat. Kamiño txarra, biaja luzea: 150 kilometro dagoz Nazarethetik Belenera. Ezagututen dogu Mariaren estatu delikadua. Alan ta guztiz-bere, oiñez doaz biak. Asto txiki baten gainean daroez etxeko tresnak eta biberak. Batzuk onantz, besteak arantz, bideak jentez beterik dagoz; Maria ta Joser

antzera, danak bete bear dabe Erromako Emperadorearen agindua. Aolan ez da gauza erreza, Palestinako arriz eta atsezz beteriko kamiño estuetatik ibiltea. Gaba datorrenean —iru edo lau gaba Belenerarte—, bide ondoko ostatuatan deskantsatu bear. Baiña ez uste, dempora atako Palestinako ostatuak gure errietako fondak lakoak zireanik. Ez! Zelai aundi bat, lau orma altukaz inguratuta, barrura sartzeko ate bat bakarrik dagoala: orixe zirean dempora atako Palestinako ostatuak. Barruan, orma kontrako tejobanetan personak egoten zirean; eta zelaiaren erdian, zèruaren azpian, animaliak: astoak, mandoak, kamellauk. Jente asko egoanean, personak curak-bere animalien artean egoten zirean. Eta naste-borraste orretan, saldu-erosien gainean berba egiten zan, errezatu, abestu, gorputzekoak egin, lo ta jan; batzutan jaioko ta il-bere bai. Dana agirian, loitasun eta usain txarrik aundienean.

—Lau edo bost egun ostean, Maria ta Jose Belenera eldu zirean. Erria, kampakarrez beterik dago. Bertako ostatuak, gainezka egiten dau. Maria, barriz, umea eukiteko gainean dago. Estatu orretan, Ama Birgineak bakartadea, ixiltasuna gura dau. Bakartadea ta ixiltasuna ezin aurkitu ostatuan, ezin aurkitu etxeetan. Arlo orretan, Belengo etxeak erriko ostatuaren antzekoak dira: gela aundi bat eta kiño; kuartu orretan dana egiten da agirian, eta gainera egun atan etxe guztiak jentez beterik dagoz. Orregaitik, Maria ta Jose erri ondoko koba batera joan zirean. Koba orreek mendi egaletan egiten zituen judeguak, eta gabaz animaliak gordetako izaten zirean. Gaurko egunean-bere ikusi leitekez Palestinan olako kobak. Mariak eta Josek artu ebena, seguru illuna zan, loa, korotzez bete, eta bearbada zokondo baten animaliak egozan. Baiña ori gorabehera, errietik zerbait aldenduta egoan, eta guztiz aundia zan bertako ixiltasuna, sosegua ta bakartadea.


—Atondu zirean alik ondoen koba barruan. Gaba zan. Biok itxaroten dagoz, deboziñoz beterik, Jesus jaioko dan mementua. Aurkitu dau San Josek lekurik egokiena ta garbiena, eta ipiñi dau lasto barria aska barruan. Ama Birgineak zabaldu ditu lastoaren gainean ume oialak, laster jaioko dana bertan ipinteko. Eta aolan, pobretasunik aundienean egertzen da munduan zeru-lurrak egin dituan Jainkoa.



EULALI.
BIOTZ ONEKOA

CHAS. KUHN-

¡PAKETE BAT ZU-
RETZAT, AMANDRE!



¡NIRE POZA! DISKO BATZUK
DIRA. ¡UMEAKANDIK GRABAU
DODAZANAK!



¡ARRAIOA! NIK ENENKIAN ZUK
ORI EGIN ZEINKEANIK, AMANDRE!





¡BAI! ¡NIK EURAKANDIK DISKO ASKO GRA-
BETAN DODAZ OLGETAN DAGOZALA!
TA EURAK KONTURATU BE EZTIRA EITEN!



¡ESKOLATIK DIRANEAN ENTZUTEKO EGIN
DODAZ! ¡TRISTE EGOTEN NAZ EURAK
EMEN EZTAGOZANEAN!





¡OINTXE IPINIKO DODAZ!...
¡EUREN BOZ ALAIK ENTZUN DAIZU-
ZAN GURA DOT!



3-27
CHAS.
KUHN-

FELIS KATUA.



EGIA TA GUZURRA

Pantxike etorri-barria da Bilbora, etxe aberats batera, neska. Lenengo egunean, ugazabak, karta bat buzoira botaten bialdu eban eta aurretik estankuan sellua ipiñi eian, peseta bat emon cutson.

Ordu bete geroago biurtu zan etxera, ta,

-Bota dozu karteak bozoira?

-Bai; baiña eztoz sellua ipiñi. Inor ez pasau arte egon nāz buzoi aurrean begira, eta inok ikusten eznauela bota dot. Olan peseta bat aurreratu dot eta emen deukoza.

Eztakigu zer erantzun eban ugazabak.

-Logikoa da.--Gizon batek esan eban:

-Nire ullea zuria da eta bigotea baltza. Eta logikoa da: Nire bigotea, nire ullea baiña ogei urte gazteago da.

Ezta bear.--Sartu da denda baten, jaubeari adarra jotearren, ziria sartuten ekiten deutson olango bat eta:

-¿Badago pinturarik?

-¿Ezta egongo ba?-- erantzuten deutso dendaraiak.

-Ba, orduan, ekarri metro bat

Saltzailleak metro bat pintetan dau mostradore-gaiñean eta badiñotso:

-¿Gura dozu papelagaz batutea?

-Ezta bear --erantzuten dau besteak-- emen jateko da.



Exkondue-bakoa, jauna.--

Badiño ugazabak.-- ¿Ze modu zure bizitza eskondu orregaz?

Enpleauak.-- Ni solteru nago, jauna.

Ugazabak.--¿Ezeunstan ba, orain ille bi, sueldua altzetako eskatu, eskondu egin bear zenduata ta?

Enpleauak.-- Bai, jauna. Baiña zuk sueldua altzau ta gero, eueban geiago pentsau orretan.





Inpernua

MAITASUN OKERTUA

Pedro, mutil gaztea, jasekoa ta galanta. Begoña, neskatilla moduzkoa, serio samarra, gorputz liraiña, gogo argia, biotz gartsua.

Neska-mutil biak asko maite zirean. Pedro soldautzara joan zanean, Begoñak estaziñora lagundu eutsan: eta batak bes-teari agur egitean, "zintzoa izango natxatzu" esan eutsan Pedrok Begoñari.

Baiña, alako baten, gurari gaizto bateri leku emon eutsan mutillak; zikindu egin eban bere arimea, usteldu bere gorputza, ondatu bere osasuna, galdu guraso izateko itxaropena. Bere bizitza nasai ta nabarmenean, sarri etorten jakon burura Begoña, bere neska lagun garbi ta politaren irudia. Baiña akordu au, mingotsa izaten jakon, eta burutik kentzeko alegin guztiak egiten zituan. Ai! Pentsamentu oneri biotzean leku apur bat emon baleutso, arean-bere bide zuzenera etorriko zan mutil errukarria. Baiña ez. Ori egin orde, geldiro geldiro, geroago ta geiago asi zan pentsetan Begoña ez zala maitagarria, ez zala polita, ez zala garbia, motza zala, ganora bakoa zala; eta neskeari gorroto izateraiño eldu zan. (Izan-bere, gorrotoa orixe da: maitasuna iruntzitara, amodioa atzekoz aurrera).

Soldautzatik etxeratu zañean, ez eutsan jaramonik egin Begoñari. Neskatileak negar asko egin eban, luzaroan egin be. Egunak joan, egunak etorri, beste mutil sendokote, biotz oneko batek eskatu eutsan eskua; ezkondu zirean, lau ume etorri jakezan eta zoriontsu bizi zirean.

Begoña ta Pedoren etxeak, alkarren ondoan egozan. Gaubean gaubean entzuten zituan Pedrok Begoñaren barre algara gozoak eta bere gizonari kantetan eutsazan-abesti beroak. Bata bestearen atzetik etorri zirean lau umeak; eta alaitasunezko argia, egunerik egunera gozoago jausten zan familia bedeinkatu onen gainera.

Orduan Pedro, zeloz beterik, erdi zoratu egin zan. Ezin ikusi eban alboko zoriona, eta amurru zital batek apurtuten eutsan biotza. Sarritan esaten eban bere artean: "Maitasun au, zorion au — Begoña ta bere umetxuak — neureak izango zirean, nik pekatu egin ez baneu. Au bai zoritxarra!" Eta pentsamentu oneri gau ta egun ekiten eutsan. Laster, bere nervioak ondatu egin zirean; bere lengo maitasuna, gorroto biurtu zan; eta egokera illun orretatik urtetako itxaropena galdu eban. Ba ete dago munduan Pedorena baiño oiñaze aundiagorik?

Orra or inpernuaren irudia.

Gure zeruko Aita onak ez dau gura bere semeeri inpernuan sufridu eragin. Ez orixe! Gauza ori pentsetea be, blasfemia izango litzake. Baiña emen lurean eriotzako orduraino Jainkoari gorroto deutsana, eternidade guztian gorrotoan biziko da, ikarragarritzko sufrimentu baten azpian egongo da, estadu orretatik inora urten ezin dabela. Jainkoaren gomutea ekarten deutse kreatura guztiak, eta pentsamentu orrek barruko bakea gero ta geiago kentzen deutsa. Bildurgarritzko esturasun batek, su gar gori baten antzera erreten deutso arimea, iñoiz kiskaldu barik.

Ez, gure zeruko Aita onak ez dau iñor kondenetan. Gizonak eurak kondenetan dira, Jainkoaren gorrotoan ilten dana, bera doa, iñok sakatu barik, gorrotoa baiño besterik ez dagoan lekura. **Inpernua, orixe da: gorrotozko estadua, besterik ez.** Estadu ori, orrexegaitik da ain negargarria; maitasunerako Jainkoak emon deuskun biotza, gorrotorako bakarrik biurtu dalako.

Mauriac, Frantziako eskribitzaille ospetsuak, «Noeud de vipères» (Ziraun mordo) deritxon novelan erakusteu dau inpernuko tormentuaren antzeko kastigu bat: bere gaiztakerikaitik bere familiari gorroto izateraiño eldu dan gizon baten ikaragarritzko sufrimentua.

ANTON



DICK WINGERT



¡GOAZEN MESEDEZ!
¡EZ AINBESTE ERRE-
GUTVERAZO!

¡EDUR ORI ONDO DA-
GO ESKIETAKO!
¡ARRABAKO ZELAIRA
JOANGO GARA!




¡BERAK USTE BADAU
DEPORTEA BEAR JAUELA
EZTOT PENTSETAN FA-
MILI OSOAK EGIN BEAR
DAVENIK; BAINA KASU
EGINGO DEUTSAGU. IA
ZER PASETAN DAN!

¡ALTZAU!



¡ORAIN ZERI BEGI-
RA GAGOZ? ZURE
BERBALDI ABIL ORRE-
GAZ GU GERTUE-
RAZO TA GERO!

BA... KAMARAKO TRESNA
GUZTIAK MOGIDU BEAR IZAN
DODAZ ESKIAK ATERATEKO.



MI-
NUTO
GEROAGO


BAGAGUZ
IA PREST.

EZ JOAN SOTANURA, DA-
NA MOGIDU BEAR IZAN
DOT PALEA TOPETAKO
TA.



ORDU
BETE
GERO-
AGO.

¡MEKASUEN SOTS!
¡DINDINO EZIN... USTE
DOT OBETO IZANGO
DALA KATEAK IPIN-
TEA AUTOMO-
BILLARI.



ORDU
ERDI
GERO-
AGO.

¡ANTON!
¡EZ MADA-
RIKAZINO-
RIK BOTA!

¡KATE MADARI-
KATUOK TXIKER-
TU EGIN DIRA
EDO...!



¡AZKENEAN!
¡BAGOAZ!

¿EZTOZU IKUSTEN?
¡AUTOMOBILLA EZTA-
BILLE LA! ¡ARRANKE-
TAKO KABLEA APUR-
TUTA DAGOLA
EDO...!

¿ZER JA-
ZOTEN
DA?



¡PUFF! ZORIONEZ TRES-
NA ZAR ONEK BADEU-
KO DINDINO ZEGAZ
ERAGIN!

OOOF!
UGH!
RRRRR.



¿EZ ITXI
AMATE-
TAN MO-
TORRARI?

¡AZKENEAN!
¡BADABIL
MOTORRA!

VRRUM!



¡ENTZUN...
JOAN ZEUOK BA-
KARRIK... ZE NI AUS-
TUTA MAGO...! OERA
NOA JAI OSORA-
KO.

¿ZER DINDOZU?